

# EUSKALTEL

## **2016KO INGURUMEN-ADIERAZPENA** *DECLARACIÓN AMBIENTAL 2016*

EE 1221/2009 Erregelamenduaren IV. eranskinean (2009ko azaroaren 25ekoa) ezarritakoa betez, zeinak erakundeei aukera ematen baitie nahi izanez gero EBko ingurumen-kudeaketa eta -ikuskaritzen sistema bati (EMAS) atxikitzeko, eta publikoari eta interesa izan dezaketen gainerako aldeei Euskaltel SArean (hemendik aurrera, Euskaltel) ingurumen-inpaktuari eta -jarrerari buruzko informazioa eman nahian, 2016ko Ingurumen Adierazpen Oso hau idatzi da, Derion, **2017ko otsailaren 20an**.

Jarduera hauei dagokie adierazpena: Euskaltelek bere egoitza korporatiboan egiten dituen guztiei, energia-kontsumoa eta Euskaltelen sarearen emisioak ere barne direla.

EMASen logotipoa erabiltzen du Euskaltelek webgunean, Erantzukizun Korporatiboaren Txostenean, bezeroentzako eskaintzetan eta lehiaketa publikoetara aurkeztutako dokumentuetan.




Enpresaren izena:	<b>EUSKALTEL, S.A.</b>
Egoitza soziala:	Bizkaiko Parke Teknologikoa, 809 eraikina 48160 Derio (Bizkaia)

Telefonia:	94.401.10.00
Faxa:	94.401.10.20
Webgunea:	<a href="http://www.euskaltel.com">www.euskaltel.com</a>
EJSN:	61.10
IFK:	A48766695
Helbide elektronikoa:	<a href="mailto:ingurumena@euskaltel.com">ingurumena@euskaltel.com</a>
Harremanetarako pertsona:	José Félix Gonzalo Kalitatea, ingurumena, ongizate eta osasuna saileko Zuzendaria

Estatuaren iparraldeko telekomunikazio-talde nagusia da Euskaltel. EAEn eta Galizian ondo errotuta dago, eta lurralde horiekiko konpromiso sendoari eusten dio. Merkatu horietan jarduten du, Euskaltel eta R operadoreen bidez.

Euskaltelen produktuen eta zerbitzuen komunikazio eguneratua dago Euskaltelen webgunean ([www.euskaltel.com](http://www.euskaltel.com)).



BEZEROAK ZERBITZUKO	2014	2015	2016
Sare propioa duten telefonia finkoko bezeroak (Zuzeneko sarbideko bezeroak)	321.222	320.197	318.900
Telefonia mugikorreko bezeroak	402.242	513.925	563.623
Banda zabaleko Interneteko bezeroak	253.872	258.954	263.267
TB digitaleko bezeroak	131.651	133.282	154.155

Kudeaketa Integratuko Sistemaren Politikan sartuta dago Euskaltelek prestatu duen Ingurumen Politika, Kalitate eta Laneko Segurtasun Politikekin batera.


*Euskaltelek, telekomunikazio operadore globalak, EAEn eskaintzen dituen zerbitzuetan enpresa aitzindaria izan nahi du, bezeroen eta gainerako interes-taldeen beharretatik eta nahietatik hurbil dagoena eta arreta eta zerbitzu ezin hobekak eskaintzen dituena; halaber, kontuan hartu nahi ditu balio-katean eta beste merkatu geografiko batzuetan hazten eta garatzen jarraitzeko aukerak.*

*Hori lortzeko kudeaketa-sistema bat definitu dugu. Gizartearekin eta bere ingurunearekin konpromisoa du, eta konpainiaren politikak barne hartzen ditu. Politika horiek beharrezkoak dira bezeroa gogobetetzeko, ingurumena zaintzeko eta hobetzeko, arrisku-mota guztiak kudeatzeko eta pertsonen ongizatea bermatzeko. Halaber, gure produktuak, zerbitzuak eta lana egiteko modua hobetzeko konpromisoa hartu dugu.*

*Politika horren bidez, Euskaltelek konpromiso hau hartu du:*

- Aplikatu beharreko legedia eta araudia betetzea, baita kudeaketa-sisteman hartzen ditugun beste zenbait konpromiso ere.*
- Merkatuarengandik eta gainerako interes-taldeengandik hurbil egoteko eta haiei etengabe entzuteko jarrera izatea, haien nahiak eta beharrak ahal den era aberasgarrienean asetzeko proposamenak identifikatzeko eta egiteko.*
- Ingurumenari egiten zaizkion kalteak eta kutsadura prebenitzea, konpainiaren jardueren ingurumen-inpaktua murrizteko politikak martxan jartzea eta ingurumen-jardunbide egokiak sustatzea*
- Enpresarentzat lan egiten duten pertsona guztien osasuna babestea eta jasan ditzaketen kalteak aurreikustea; halaber, langileen parte-hartzea sustatzeko behar diren informazioa eta trebakuntza ematea, arau eta jarraibideak betetzeko eta hobetzeko proposamenak egin ditzaten.*
- Garapen jasagarria oinarri duen kudeaketa-sistema bat hedatzea, ekonomia-, ingurumen- eta gizarte-alderdiak aintzat hartuko dituena.*
- Gure jarduerak enpresan ezarritako balioekin bat etortzea.*
- Politika honekin bat datozen helburuak ezartzea eta aldizka berrikustea eta egokitzea.*
- Barnean berrikuntzari bultzada ematea merkatuan eta une bakoitzean egokienak diren teknologiak erabiltzea, gure xedea betetzeko.*

*Politika hori gure jarduera, produktu eta zerbitzu guztiei aplikatu behar zaie, gure lantoki guztietan. Halaber, erakunde guztiari jakinarazi behar zaio, baita akziodunei, alderdi interesdunei eta, oro har, jendeari ere. Aldizka berrikusi behar da, une bakoitzean Euskaltelentzat egokia dela ziurtatzeko.*




**Alberto García Erauzkin**  
Presidentea - Presidente

Derio, 2014ko apirilean

Euskaltelen Kudeaketa Sistemak estrategia hedatzeko sistema misto eta osagarria uztartzen du; batetik, bertikalean, antolamendu-egiturarantz, eta, bestetik, horizontalean, prozesuetarantz.

Euskaltelek AENORen ziurtagiria du, UNE-EN ISO 9001 eta 14001 arauen, OHSAS 18001 zehaztapenaren eta UNE-ISO/IEC 27001 arauaren araberakoa.

2004tik, Ingurumen Adierazpenak egiten ditu urtero. AENOREk baliozkotzen ditu adierazpenak, EMAS Erregelamenduaren arabera. Euskaltelek Ingurumena Kudeatzeko eta Ikuskatzeko Europar Batasuneko Sistemari (EMAS) erregistratuta jarraitzen du (Eusko Jaurlaritzak erregistratu zuen, **E-EU-000024** erregistrozenbakiarekin), 2004ko abenduaren 21eko ebazpenaren (eta 2005eko ekainaren 9ko ondorengo zuzenketaren) arabera. 2016an, 2015eko Ingurumen Adierazpena aurkeztu zuen Euskaltelek, eta AENOREk baliozkotu egin zuen hura ere, 2016ko apirilaren 5ean.



Ingurumen-alderdi bakoitza dagokion ingurumen-inpaktuaren larritasunaren arabera ebaluatzen da, eta hiru irizpide hauen arabera baloratzen: [larritasuna], [kantitatea edo maiztasuna edo probabilitatea] eta [garrantzia]. Balorazio horren ondoren, alderdi garrantzitsutzat zein jotzen diren erabakitzen da.


Alderdi adierazgarrietan jartzen da minimizatzeko eta kontrolatzeko arreta, eta kontuan hartzen dira ingurumen-helburuak zehaztean.

Hauek dira 2016rako ezarritako ingurumen-alderdiak:


INGURUMEN-ALDERDI GARRANTZITSUA	KONTROL-MOTA	INGURUMEN-INPAKTUA
Elektrizitate-kontsumoa	Zuzena	Baliabide naturalen murrizketa
1+2 irisimeneko BEGen emisioa (Berotegi Efektuko Gasak)	Zuzena	Berotegi efektua
Hondakin arriskutsuen sorrera (fluoreszenteak) enpresaren eraikinetan	Zuzena	Lurraren eta uraren kutsadura

Ingurumen-alderdi garrantzitsuetarako ezartzen dira, nagusiki, ingurumen-helburuak, eta beste arrazoi batzuegatik ere defini daitezke; adibidez, hauengatik: aurreko urtean erdietsi ez diren helburuak, Ingurumen Gidaplaneko ekintza zehatzak eta Estrategiaren eta kanpo-konpromisoen ondorio diren ekintzak.

Urtero finkatzen dira helburu horiek, eta lortzeko egin beharreko ekintzak definitzen dira. Adierazleen eta xedeen bidez neurtzen da, hainbatean behin, zenbateraino betetzen diren.


		INGURUMEN HELBUURAK / OBJETIVOS DE MEDIO AMBIENTE		2016	0	JARRAIPENA / SEGUIMIENTO			
		Data/Fecha	25/11/2016						
HELBUURAK ETA ADIERAZLEAK / OBJETIVOS E INDICADORES		XEDEA META	UNIT. UNID.	Hobekuntza Mejora	2015ko emaitza Resultado 2015	Metatze Acumulado	H.ren % % mejora	betetzen du? ¿cumple?	
KONTSUMOA	<b>Helb.</b>	Elektrizitate-kontsumoa murriztea							
	<b>Adieraz.</b>	Produktu bakoitzeko elektrizitate-kontsumoa	< 22,04	kWh/produktu	2015eko datuaren % 2	22,49	21,90	2,6%	Bai
EMISIOAK	<b>Helb.</b>	BEGen emisioak gutxitzea							
	<b>Adieraz.</b>	1 + 2 Irismeneko BEGen emisioak, produktuko	< 5,325	kg CO2/produktu	2015eko datuaren % 2	5,434	3,800	30,1%	Bai
HONDAKIN ARRISKUTSUAK	<b>Helb.</b>	Murriztea matxurak direla eta enpresaren eraikinetan sortzen diren fluoreszente-hondakinak							
	<b>Adieraz.</b>	Matxurak direla eta enpresaren eraikinetan pertsonako erretiratutako fluoreszenteak	< 2,70	zb/pertsona	2015eko datuaren % 5	2,84	2,42	14,8%	Bai

Ingurumenari buruzko estrategia bat antolatzen du Euskaltelek, eta bere Ingurumen Gidaplanean adierazten. 2016an, indarrean jarraitzen zuen **2014-2016 Ingurumen Gidaplanak**, zeinaren lerro estrategiko nagusiak hauek ziren:





Ekintza hauen bidez hedatzen dira **2014-2016 Ingurumen Gidaplanaren** lerro estrategikoak:



Ekonomia digitalaren alorrean, gai garrantzizkotzat jotzen da ingurumenaren zaintza.

Ingurumen-alderdien garrantziaz jabeturik, jarrera arduratsua sustatu nahi du Euskaltelek, eta giza jarduerak ingurumenean duen inpaktua etengabe gutxitzeko prozesuan parte hartu.

Gure asmoa da, batetik, berotegi-efektuko gasen emisioak murrizten laguntzea, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) hedatuz eta zerbitzu ematen den sektoreetan erabiliz (adibidez, hezkuntza, osasuna eta ongizatea, segurtasuna, energia); bestetik, eredugarri izan nahi dugu jarduera arduratsu horretan, eta enpresaren ingurumen-inpaktuak kudeatu, hazkunde eta aldaketa teknologikoko testuinguru honetan.

Horretarako, alor hauetan ari gara jarduerak egiten:




### ELEKTRIZITATE-KONTSUMOA

Elektrizitate-kontsumoa da Euskaltelen ingurumen-alderdi esanguratsuenetako bat. Batetik, telekomunikazio sareak kontsumitzen du elektrizitatea, bezeroei zerbitzua emateko; bestetik, zerbitzu zentralen eraikinak (luminariak, PCak, klimatizazioa, besteak beste).

**2016rako Energia Eraginkortasuneko Plana** zehaztua du Euskaltelek. Han jasotzen dira energia-kontsumoan aurrezteko ezarritako neurriak, bai elektrizitatearen, bai erregaiaren kontsumoan. Elektrizitate-kontsumoa gutxitzeko, neurri hauek hartu ziren, besteak beste:

- Energia Eraginkortasunaren Auditoretza, energia-kontsumoa gutxitzeko eta kontsumitutako energiaren eraginkortasuna areagotzeko prozesuetan egin beharreko jarduerak identifikatzearen.
- Energia-aurrezteko premiari buruzko sentsibilizazio-kanpainak.
- Eraikin zentraletako luminarien erabilera arrazionalizatuz, luminariak itzaltzeko mekanismo automatiko berriak instalatuz (DPZetan) eta lehendik daudenei jarraipena emanaz (korridoreetan eta bulegoetan)
- Laneko eta Euskaltel Taldearen egoitzen arteko joan-etorrietarako ibilgailu-erabilera arrazionalizatuz.
- Energia aldetik eraginkorragoa den ekipamendua instalatuz DPZetan (zerbitzariak), eta lehendik erabiltzen diren zerbitzariak kontsolidatuz.




### ERREGAI-KONTSUMOA

Erregai-kontsumoaren eginkizuna produktiboa da batik bat. Ekipo elektrogenoen funtzionamendurako erabiltzen da erregaia, eta enpresarako lanean ari diren langileen joan-etorrietarako; autoak ibilarazteko, alegia.

Eraikin korporatiboetako eta sareko zentro nodaletako energia nagusiaren elikadurak huts egiten duenean edo haren mantentze-lanak egiteko jartzen dira martxan ekipo elektrogenoak. Hori dela eta, kontsumo txikia dute, baina aurrekusi ezinekoa. Alabaina, gora egin du kontsumoak 2016an, probak egin baitira ekipo elektrogeno horien mantentze-sistemetan.

Enpresako kontuengatik egiten diren joan-etorrietan, enpresako autoak (flota) eta langileenak erabiltzen dira, aurrezte- eta/edo -arrazionalizazio-irizpideak aplikatuz betiere. Bestek beste, neurri hauek hartzen dira:

- Enpresako kontuengatik egiten diren joan-etorrietan, enpresako autoak (flota) erabiltzea lehenesten da, langileen autoen aurretik. Izan ere, oro har, enpresako autoek gutxiago kontsumitzen dute, eta CO<sub>2</sub> gutxiago emititzen. Hori dela eta, enpresako autoen erabilera areagotu egin nahi du Euskaltelek, eta auto partikularrak joan-etorri laburrenetarako soilik bakarrik utzi.
- Bideokonferentziaz egitea probintzia desberdinetako langileen arteko bilerak, joan-etorri luzeak saihesteko.
- Euskaltel ordezkatzera kanpoko ekitaldi batera joatea komeni den alde aurretik aztertzea, eta saihestea baztergarrizat jotzen diren ekitaldiak.




(\* Erregai-kontsumoa kalkulatzeko, m<sup>3</sup>-tik Gjoule eta Mwh-etarako Global Reporting Initiative gidako (GRI) bihurketa erabiltzen da, 3.1 bertsioa.

## URA

Eraikin korporatiboetan kontsumitzen den ur guztia Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren hornidura-sarekoa da, eta erabilera bat edo beste ematen zaio, premien arabera: giza erabilera, lorategien ureztatze-lanak eta eraikin eta autoen garbiketa barne direla, eta sareko ekipoak hoztea (telekomunikazio-sarea).

Ur gutxiago kontsumitu da 2016an, eguraldiari esker (ureztatzeko premia txikiagoa); giza erabilerarako kontsumoa, berriz, antzekoa izan da bi urteetan. Horrenbestez, behera egin du kontsumoak, 2015ekoarekin alderatuta.



## ARRETA BEREZIA BIRZIKLATZEARI ETA EKONOMIA ZIRKULARRARI

Asko ari da hazten Gailu Elektriko eta Elektronikoen (GEE) fabrikazioaren sektorea, geroz eta laburragoak baitira ekipo horien berrikuntza-zikloak eta, horrenbestez, geroz eta maizago aldatzen baitira gailuak. Hori dela eta, hondakin-iturri etengabea dira GEEak, eta neurriak hartu beharra dago hori saihesteko, ekipoen berrerabiltzea sustatuz.

GEEen hondakin gutxiago sortzeko, **ekonomia zirkularra** sustatzen du Euskaltelek, eta, birziklatzearen gaineratik, lehentasuna ematen dio berrerabiltzeari. Horretarako, berregokitu egiten ditu Euskaltelek baldintzak betetzen dituzten bezeroen ekipoak (deskodetzaileak, kable-modemak, bideratzaileak, besteak beste). Gainerakoak birziklatu egiten dira, GEEHen kudeatzaile baimendu bati entregatuta.

Bezeroen ekipoen % 61 birziklatu dira 2016an.

Euskaltelek Alboan GKEarekin batera, “Mugikorrek Kongoren alde” kanpainan parte hartzen du, eta zerbitzuak edo lekuak eskaintzen ditu, doan, bere saltokietan eta bulegoetan telefono mugikorrek jasotzeko puntuak jartzeko. Kanpainaren helburua zera da: Euskadiko biztanleei informazioa ematea, ohartaraztea eta haien telefono mugikor erabiliak jasotzea, baliabide ekonomikoak sortzeko jasotako terminalak salduz eta berrerabiliz. Lortutako dirua Kongon nazioarteko lankidetzaproiektuak finantzatzeko erabiliko da, Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuaren bidez.

ALBOANen kanpaina: [www.tecnologia LibreDeConflicto.org](http://www.tecnologia LibreDeConflicto.org)

		unitateak		
EKINTZA / GEE	NORAKOA	2014	2015	2016
<b>Berri moduan jarri</b>				
Deskodetzaileak	Berrerabiltzea	10.912	12.677	18.896
Kable-modemak		32.387	33.331	42.408
Bideratzaileak		640	1.021	1.195
<b>Kudeatzaile baimendu bati eman</b>				
Deskodetzaileak	Birziklapena	4.767	1.219	30.942
Kable-modemak		28.797	11.483	4.420
Bideratzaileak		1.835	676	442
Telefono finkoak		6.991	6.084	4.205
<b>Berrerabiltze-zerbitzuak</b>				
Deskodetzaileak	%	69,6%	91,2%	37,9%
Kable-modemak		52,9%	74,4%	90,6%
Bideratzaileak		25,9%	60,2%	73,0%
Telefono finkoak		0,0%	0,0%	0,0%




## BERUN AZIDOZKO BATERIEN HONDAKINAK

Euskaltelek berunezko bateriak erabiltzen ditu energia elektrikoaren hornidura ziurtatzeko, bai sarean, bai eraikin korporatiboan.

Bateria horiek dira enpresaren hondakinik arriskutsuena, sortzen den bolumenagatik. Baterien bizitza-amaierak sortzen du hondakin hori, egungo araudiak haiek hainbatean behin aldatzeko agintzen baitu.

Politika horren aplikazioa dela eta, maiz izaten dira puntak hondakin-kopuruan, eta urte batzuetan beste batzuetan baino gehiago sortzen dira.



## OBRA- ETA INSTALAZIO-HONDAKINAK

Hirugarren batzuek Euskaltelentzat egiten dituzten obretan sortzen dira hondakin horiek, eta hondakin geldo gisa katalogatzen dira gehienak. Obrak egiten dituzten kontratek kudeatzen dituzte.


Hauek dira obra, instalazio eta mantentze-lanetan sortzen diren ohiko hondakinak: obretako hondakin geldoak (lurra, asfaltoa, obra-hondakinak, etab.) eta gailu elektriko eta elektronikoaren hondakinak — GEEH— (kable-hondarrak; adibidez, zuntz optikoa, kable ardazkidea eta pare-kableak).

Obra eta jarduera horiek kontrolatzeko, aldez aurreko sentsibilizazio- eta komunikazio-kanpaina egin du Euskaltelek, ISO 14001 arauari jarraikiz ingurumen-kudeaketako bikaintasunarekin dugun konpromisoaren berri emateko. Obra-kontraten ikuskapenak planifikatzen eta egiten ditu Euskaltelek, aplika daitezkeen Kudeaketa Sistema Integratuko (KSI) prozeduretan ezarritako metodologiari jarraikiz.

## ZELULOSA-HONDAKINAK

Bulegoko jardueretatik datozen paperezko eta kartoizko hondakinak sortzen dira eraikin korporatiboetan. Enpresa espezializatu bati ematen zaizkio hondakin horiek. Hark, berriz, bere instalazioetara eramaten ditu, birrintzera, eta, gero, kudeatzaile baimendu bati ematen dizkio. Suntsitu egiten da papera, datu konfidentzialak izan baititzake.

Jarduera “normal” batean sortzen diren hondakin-kantitate horiez gain, 2016ko lehen hiruhilekoan dokumentazio zaharkitua ezabatzeko garbiketa-lanak egin ziren. Hori dela eta, 15,7 tona hondakin suntsitu eta birziklatu ziren.



## GAILU ELEKTRIKO ETA ELEKTRONIKOEN HONDAKINAK

Ekonomia zirkularra sustatzen du Euskaltelek, eta, birziklatzearen gainera, lehenetsia ematen dio berrerabiltzeari. Horretarako, berregokitu egiten ditu Euskaltelek baldintzak betetzen dituzten bezeroen ekipoak —deskodetzaileak, kable-modemak, bideratzaileak, besteak beste—. (Ikusi "Arreta berezia birziklatzeari eta ekonomia zirkularrari").

Gainerako hondakinak birziklatu egiten dira, GEEHn (Gailu elektriko eta elektronikoen hondakinak) kudeatzaile baimendu bati entregatuta.



## BESTE HONDAKIN BATZUK

Beste hondakin hauek ere sortzen ditu Euskaltelek:

HONDAKINAK	Jatorria	Hondakinak sortu dituen jarduera
Fluoreszenteak	Argi-sistema	Eraikinen eta sareko zentroyen mantentze-lana
Mugikorreko bateriak (*)	Mugikorrak	Ekipoen kudeaketa eta lan administratiboak
Pila alkalinoak (*)	Urrutiko aginteak (deskodegailuak)	Ekipoen kudeaketa
Botoi-pilak (*)	Bulegoko ekipoak	Lan administratiboak
CDak eta DVDak (*)	Informazio-euskarria	Lan administratiboak

Halako zenbat hondakin sortu dituen jakiteko, kontsultatu "Oinarrizko adierazleak" taula.

Hondakin horien kudeaketan, bete beharreko lege-baldintza guztiak betetzen dira; kasuaren arabera, Eusko Jaurlaritzak baimendutako kudeatzaile bati, Garbigune bati edo Kudeaketa Sistema Integratu bati (KSI) ematen zaizkio.

Beren jarduera pribatuetan edo etxebizitza partikularretan sortutako eta (\*)-z markatutako hondakinak emateko aukera eskaintzen die Euskaltelek bere langileei; horretarako, eraikinetan banatutako edukiontziak erabiltzen dira.

Ontzi-hondakinak bereiz biltzen ditu Euskaltelek bere eraikin korporatiboan. Edukiontzi horiak jarri ditu, langileek eraikin korporatiboetan horretarako prestatutako lekuetan biltzeko batez ere kontsumitzen dituzten jakien eta edarien hondakinak.

Bestalde, Ecoembes Kudeaketa Sistema Integratuari atxiki zaio Euskaltel, merkaturatzen dituen ontzien hondakinak kudeatzeko.


Zuhaitzak inausi eta belarra moztutakoan sortzen diren hondakinak ere (landare-hondakinak) lorategiak zaintzeaz arduratzen diren enpresak erabiltzen ditu bere instalazioetan konposta prestatzeko.

## GAS HOZTAILEEN, GAS ISOLATZAILEEN ETA ETA BESTE BATZUEN EMISIOAK

Klimatizazio-sistemen zirkuituetako ihesek eragiten dituzte hozteko gasen emisioak. Euskaltelek prebentziozko mantentze-lanak egiten ditu, ihesik gerta ez dadin.

2012tik, R-22 gasa ordeztzeko plan bat du Euskaltelek; gas horren ihesik baldin badago, beste gas baimendu bat kargatzen zaio ekipoari; bestela, ekipoa aldatu edo kendu egiten da.

Euskaltelek beste gas-mota batzuen emisioak ere sortzen ditu ( $\text{SO}_2$ , NOX), enpresaren ekipo elektrogenoen eta lanerako erabiltzen diren ibilgailuen erregai-kontsumoa dela eta.





## BEROTEGI EFEKTUKO GASEN (BEG) EMISIOAK

Euskaltelen jarduera dela eta, atmosferara **Zuzeneko BEG-emisioak** oso txikiak dira. Hauen ondoriozkoak dira berotegi-efektuko gasen emisioak (BEG), oro har: erabilitako erregaiari dagozkionak (bai ekipo elektrogenoenak, bai langileek lan-kontuengatik egiten dituzten joan-etorrienak), eta airea girotzeko sistemetakoz hozteko gasen edo goi-tentsioko transformadoreetako isolatzeko gasen istripuzko ihesak (matxurarik gertatzen bada).

Euskaltelek kontrolatzen dituen gainerako emisioak **Zeharkako BEG-emisioak** dira, erakundearen kontsumitzen den energia sortzetik datozenak.

## BEROTEGI EFEKTUKO GASEN (BEG) EMISIOAK



Euskaltelek urtero kalkulatu du erakundearen karbono-aztarna, eta IHOBE gidari duen STOP CO<sub>2</sub> Euskadi proiektuak garatutako kalkulu-tresnaren arabera egiten ditu BEGen emisioei buruzko txostenak, zuzenekoak nahiz zeharkakoak kuantifikatuz

Euskaltelek urtero egiten eta argitaratzen ditu berotegi-efektuko gasen emisioen (BEG) kalkuluak, horiek murrizteko plan bat definitzen du, eta hirugarren aintzatetsi baten bidez egiaztatzen ditu. Ondoren, Deklarazio hau argitaratzen du.

Erakundeak kontrolatzen dituen emisioak kalkulatu ditu Euskaltelek, bai zuzenekoak, erakundeko iturrietatik datozenak (1. mailako irismena), bai zeharkakoak, kanpoan elektrizitatea sortzetik datozenak (2. mailako irismena). Ez dira sartzen erakundeak kontrolatzen ez dituen kanpoko zeharkako beste emisio batzuk (3. mailako irismena).

BEG-emisioak txikitzeko, emisioak murrizteko planak ezartzen ditu urtero Euskaltelek, batez ere energia elektrikoaren eta erregaiaren kontsumoa murrizteko neurri osatuak. 2016an ezarritako neurri nagusiak "Energia-kontsumoa" atalean daude.

## KARBONO-AZTARNA ETA BIZI-ZIKLOAREN AZTERKETA

2014az geroztik, produktuen eta zerbitzuen karbono-aztarna kalkulatzeko sistematika bat ezarria du Euskaltelek, Basque Ecodesign Center-en partaide izaki, eta bere zerbitzuen eta produktuen ingurumen-inpaktua kalkulatu du, bai eta inpaktu horrek klima-aldaketan duen eragina ere.


2014an, OSOA produktuaren aztarna kalkulatu genuen, eta 2015ean, Euskaltel WiFi produktuaren bizi-zikloa; 2016an, berriz, OSOA areagotu egin dugu produktuaren kalkulua, eta hedatu berri dugun 4G sarea ere sartu dugu.

Bizi-ziklo osoko BEG emisioak kalkulatu dira, ekipoa fabrikatzen denetik bizitza erabilgarria bukatu artekoak, eta kontuan izan da zer eragin duen fabrikatzailean, Euskaltelen sarean, hondakinen kudeaketan eta bezeroaren etxean. Kalkulu hori egiteko, hainbat eragileren informazioa bildu behar izan da: barnekoa, ekipohornitzaileena eta beste erakunde batzuenak.

Hornidura-katean horrek guztiak egiten duen trakzio-lan handiari esker, hobetu egiten da Euskaltelen politiken gardentasuna eta haiekiko konpromisoa.



Klima-aldaketan duen eragina (382,608 kg CO2 baliokide)




## KLIMA-ALDAKETARA EGOKITZEN

IHOBE gidari duen "Erakundeak klima-aldaketara egokitzeko metodologia baten prestaketa eta zuzendaritza" proiektuko partaide da Euskaltel. proiektuaren helburua: erakunde publikoek zein pribatuek klima-aldaketaren arriskuak aztertzeke metodologia bat prestatzea eta probatzea, etab egokitze-neurriak hautatzea.

"20150erako Klima Aldaketaren Euskadiko estrategia"-koa da proiektu hori, zeinak bi helburu hauek dituen:

- Klima-aldaketaren inpaktua arintzea
- Klima-aldaketara egokitzea



Euskaltelek, ingurumen-kudeaketa bikainaren alde egin duen apustuan, indarrean den legedia betetzea du Gidaplanean garatutako ildo estrategiko nagusietako bat. Horretarako, eta erakunde barruan dagokion legedia identifikatu eta aztertzeke prozesua indartzeko, zerbitzu bat du kontratatua, argitaratzen den ingurumen-legedia berriari buruz unean unean eta aldiro informazioa ematen duena. Xedapen horiek aplikatu beharreko legediaren artxiboan gordetzen dira, aplikatzen diren baldintzak erazten dira, eta dagozkien pertsoneri jakinarazten zaizkie. Ingurumen-portaeraren kudeaketan eta sistemaren dokumentazioan kontuan hartzen da edukia, zeina arriskuak kudeatzeko prozesu osoa baita, betiere ingurumen-legediaren betetze-maila aintzat hartuta.

Era berean, Euskaltelek urtero aztertzen du aplikatu beharreko lege-baldintzen betetze-maila. 2016an, Euskaltelek ez du inolako legerik hautsi, eta ez du jaso inolako erreklamaziorik legeak ez betetzeagatik.

Euskalteli aplikatzen zaizkion ingurumen-alorreko lege-betebeharrak ingurumen-eremu edo -alor hauetan sartzen dira:

EUROPA, ESTATUA ETA AUTONOMIA- ERKIDEGOAK	ENPRESA-JARDUERA	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Jarduera-, irekiera- eta obra-lizentziak</li> <li>– Ingurumen-inpaktuko azterketak</li> <li>– Industriako Erregistro Integratua</li> <li>– Ingurumena Kudeatzeko eta Ikuskatzeko Europar Batasuneko Sistema (EMAS).</li> <li>– Ingurumen-erantzukizuna</li> </ul>
	DISEINU EKOLOGIKOA ETA EKIPAMENDUA	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Energia erabiltzen duten ekipoen diseinu ekologikoa (EuP)</li> <li>– Energia erabiltzen duten ekipoen energia elektrikoaren kontsumoa (erabiltzeko prest daudenean eta desaktibatuta daudenean)</li> </ul>
	ATMOSFERA	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Ozono-geruza urritzen duten gas fluordunak</li> <li>– Berotegi-efektuko gas fluordunak</li> <li>– Ibilgailuek igorritako emisioak (IAT)</li> </ul>
	URA	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Uraren kanona</li> </ul>
	HONDAKINAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Olio erabilien kudeaketa</li> <li>– Hondakin toxiko eta arriskutsuen kudeaketa</li> <li>– Hondakin geldoen kudeaketa</li> <li>– Eraikuntzako eta eraispeneko hondakin geldoen kudeaketa</li> <li>– Ontzien eta ontzi-hondakinen kudeaketa</li> <li>– Gailu elektriko eta elektronikoen hondakinen kudeaketa (GEEH)</li> <li>– Pila- eta metagailu-hondakinen kudeaketa</li> </ul>
TOKIKOA ETA UDALEKOAK	URA	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Ur-hornidura eta saneamendua</li> <li>– Kolektorera isuritakoak eta haien arazketa</li> <li>– Uraren ziklo integrala</li> </ul>
	EMISIOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Airearen poluzioa eta klima-aldaketa</li> </ul>
	INSTALAZIOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Telekomunikazio-instalazioak</li> </ul>
	HONDAKINAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Hiri-hondakin solidoak jasotzea, garbiguneak eta zabortegeiak</li> <li>– Obrak, bide publikoen eta lursail pribatuen garbiketa</li> <li>– Hondakin-bilketa dendetan, industrialdeetan</li> </ul>
	ZARATA	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Zarata eta bibrazioak</li> </ul>
	ARAU OROKORRAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Ingurumenaren babesa</li> <li>– Obra- eta jarduera-lizentziak</li> <li>– Bide publikoetako zirkulazioa eta segurtasuna</li> <li>– Hiri-antolamendua, Plan Orokorrak (HAPO)</li> <li>– Beste zenbait (adibidez, eguzki-energia, gunee berdeak)</li> </ul>

*Oharra: Zerrenda honetan, ez dira jaso "Segurtasun industrial" epigrafeko betebeharrak adibidez eraikinetako instalazio termikoak, barne-erabilerarako petrolio-instalazioak, suteetatik babesteko sistemak.*

Euskaltelek, lege-xedapenak betez, lizentzia, baimen eta inskripzio hauek ditu:

Enpresa-jarduera	1997-01-01etik jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda egotearen ziurtagiria.
Eraikin korporatiboa - Bizkaiko Teknologia Parkea- 809 eraikina- Derio	Jarduera-lizentzia, 2000/03/24koa
	Obra-lizentzia, 2000/06/14koa
	Irekiera-lizentzia, 2003/10/20koa
	1. okupazioko lizentzia, 2005/02/10ekoa
	Isurtze-baimena, 2012/04/27koa
Hondakin arriskutsuen ekoizle txikia	(Hasierako) inskripzioa Hondakin Arriskutsuen Ekoizle Txikien Erregistroan, 1999/07/27koa
	Hondakin Arriskutsuen Ekoizle Txikien Erregistroko inskripzioaren berritzea, 2004/02/16koa
Hondakin ez-arriskutsuen ekoizlea	Industria-hondakin geldoen ekoizleen inskripzioa, 1999/06/28koa
Erregai likidoko instalazioak	809 eraikinean erregai-andel lurperatu bat martxan jarri dela egiaztatzen duen agiria, 2003/01/14koa
	809 eraikineko petrolio-instalazioaren aldizkako ikuskapenaren ziurtagiria, 2012/04/12koa
Goi-tentsioko instalazioak	809 eraikineko transformazio-zentroaren instalazioa martxan jarri dela egiaztatzen duen agiria, 2003/02/13koa
	809 eraikineko goi-tentsioko instalazioaren aldizkako ikuskapenaren ziurtagiria, 2014/12/22koa
Behe-tentsioko instalazioak	809 eraikineko behe-tentsioko instalazioa martxan jarri dela egiaztatzen duen agiria, 2003/03/06koa
	809 eraikineko behe-tentsioko instalazioaren aldizkako ikuskapenaren ziurtagiria, 2013/10/30ekoa



EREMUA	ADIERAZLEA		R UNITATEAK	2014			2015			2016		
				A	B	R	A	B	R	A	B	R
ENERGIA ETA ERREGAIK	ARGINDAR-KONTSUMOA		MWh/Langile-kop.	28.764	497	57,87	28.669	343	83,58	30.017	339	88,48
	ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KONTSUMOA		MWh/Langile-kop.	0	497	0,00	0	343	0,00	0	339	0,00
	GASOLIO- KONTSUMOA	Ekipo elektrogenoak	MWh/Langile-kop.	101,08	497	0,20	28,29	343	0,08	45,11	339	0,13
		Enpresa-autoak	MWh/Langile-kop.	559,07	497	1,12	227,94	343	0,66	226,36	339	0,67
Auto partikularrak		MWh/Langile-kop.	247,20	497	0,50	246,75	343	0,72	279,94	339	0,83	
MATERIAL-KONTSUMOA	Kableak	Zuntz Optikorako kableak	t / Langile-kop.	9,96	497	0,02	8,73	343	0,03	2,59	339	0,01
		Pare-kablea	t / Langile-kop.	22,82	497	0,05	46,03	343	0,13	11,76	339	0,03
		Kable ardazkidea	t / Langile-kop.	31,16	497	0,06	34,95	343	0,10	5,83	339	0,02
		Kable siamdarra	t / Langile-kop.	6,95	497	0,01	8,00	343	0,02	2,40	339	0,01
	Ekipoak	Banda Zabaleko ekipoak (kable-modemak, ADSL modema, bideratzailea, e.a.)	t / Langile-kop.	39,42	497	0,08	29,81	343	0,09	28,13	339	0,08
		TB Digitalaren ekipamendua (Set Top Box-a, zapper-ak)	t / Langile-kop.	38,88	497	0,08	75,87	343	0,22	85,43	339	0,25
		Telefonia-ekipoak	t / Langile-kop.	1,45	497	0,00	3,58	343	0,01	1,64	339	0,00
	Papera	Fakturak	t / Langile-kop.	30,12	497	0,06	27,54	343	0,08	29,87	339	0,09
		Aldizkariak	t / Langile-kop.	0,00	497	0,00	0,00	343	0,00	0,00	339	0,00
		Publizitate-mailingak	t / Langile-kop.	107,05	497	0,22	53,97	343	0,16	49,40	339	0,15
		Inprimakiak	t / Langile-kop.	0,24	497	0,00	0,23	343	0,00	0,15	339	0,00
		Inprimatze-ekipoak (bulegoetan)	t / Langile-kop.	6,90	497	0,01	5,01	343	0,01	4,61	339	0,01
	URA	UR-KONTSUMOA		m3 / Langile-kop.	4.354	497	8,76	4.564	343	13,31	3.999	339

OHARRA: Oinarrizko adierazleak EMAS IIIren arabera definitzen dira; beraz, taulan jasotako balioek eskema honi jarraitzen diote:

A: urteko inpaktua/kontsumoa kontuan hartutako eremuan

B: erakundearen tamaina, langile-kopuruaren arabera adierazia (urteko batezbestekoa hartu da aintzat)

R: A/B erlazioa.

EREMUA	ADIERAZLEA		R UNITATEAK	2014			2015			2016		
				A	B	R	A	B	R	A	B	R
HONDAKINAK	Hondakin ez-arriskutsuak eta hiri-hondakinak	Hondakin zelulosikoak (1)	t / Langile-kop.	22,87	497	0,05	31,11	343	0,09	27,26	339	0,08
		GEE hondakinak	t / Langile-kop.	41,31	497	0,08	32,32	343	0,09	56,62	339	0,17
		Pila alkalinoak	t / Langile-kop.	0,111	497	0,00	0,173	343	0,00	0,221	339	0,00
		Mugikorretako bateriak (litio-iodunak)	t / Langile-kop.	0,000	497	0,00	0,000	343	0,00	0,026	339	0,00
		CDak eta DVDak	t / Langile-kop.	0,041	497	0,00	0,039	343	0,00	0,033	339	0,00
	Hondakin arriskutsuak	Botoi-pilak	kg. / Langile-kop.	0,325	497	0,00	0,380	343	0,00	0,340	339	0,00
		Fluoreszenteak	t / Langile-kop.	0,390	497	0,00	0,661	343	0,00	0,560	339	0,00
		Berun azidozko bateriak	t / Langile-kop.	7,23	497	0,01	6,99	343	0,02	9,66	339	0,03
BIODI-BERTSI-TATEA	Lurzoru-okupazioa		m2 / Langile-kop.	7.150	497	14,39	5.500	343	16,03	5.500	339	16,21
EMISIOAK	ZUZENEKO BEG-EMISIOAK (1 irismena)	CO2	t baliok. CO2 / Langile-kop.	172,78	497	0,35	67,06	343	0,20	71,05	339	0,21
		CH4	t baliok. CO2 / Langile-kop.	0,22	497	0,00	0,09	343	0,00	0,09	339	0,00
		N2O	t baliok. CO2 / Langile-kop.	2,39	497	0,00	0,96	343	0,00	0,97	339	0,00
		HFC	t baliok. CO2 / Langile-kop.	106,47	497	0,21	137,45	343	0,40	200,34	339	0,59
		PFC	t baliok. CO2 / Langile-kop.	0,00	497	0,00	0,00	343	0,00	0,00	339	0,00
		SF6	t baliok. CO2 / Langile-kop.	0,00	497	0,00	0,00	343	0,00	0,00	339	0,00
	ZEHARKAKO BEG-EMISIOAK (2 irismena)	CO2	t baliok. CO2 / Langile-kop.	5.445,96	497	10,96	6.850,63	343	19,97	4.980,33	339	14,68
	KARBONO AZTARNA	CO2e.	t baliok. CO2 / Langile-kop.	5.727,82	497	11,52	7.056,20	343	20,57	5.252,78	339	15,48
	ATMOSFERARAKO EMISIOAK GUZTIRA	SO2	t / Langile-kop.	0,0009	497	0,00	0,0003	343	0,00	0,0004	339	0,00
		NOx	t / Langile-kop.	0,7108	497	0,00	0,2759	343	0,00	0,2923	339	0,00
		Partículas Sólidas	t / Langile-kop.	0,0603	497	0,00	0,0234	343	0,00	0,0248	339	0,00

Aurreko memoriarekiko taulan egindako aldaketak:

- (1) Zelulosa-hondakinak: Aldaketa 2015ean sortutako hondakin-kopuruan: kalkulu-akats bat detektatu da. Zuzendu dugu jada.
- (2) GEEH: Aldaketa 2014an sortutako hondakin-kopuruan: kalkulu-akats bat detektatu da. Zuzendu dugu jada.

Hurrengo ingurumen-adierazpena **2018ko martxoan** aurkeztuko da.

2017ko martxoaren 3an baliozkotu du AENORek adierazpen hau.

BALIOZTATUTAKO INGURUMEN AITORPENA

# AENOR

(CE) 1221/2009 ARAUDIAREN ARABERA

ES-V-0001

ZENBAKIAREKIN AKREDITUTAKO EGIAZTATZAILE NAZIONALA

Balioztatze data: 2017-03-30